

IL AZALPEN PROBA • <i>Ni, Vera</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Ez duzu hitz egiten jarraitzeko gogorik, ezta?  
 Ez da hori...  
 Lanez lepo zabilta...  
 Bai, hori da.  
 Ondo zaudela esan didazu eta ni lasaiago geratu naiz, hiztunago zauden egun batean deitu diezadakezu.  
 Hala egingo dut, ama.  
 Hiru segundoko isilunea. Tentsioa.  
 Martina, gure arteko komunikazioa hobea izatea gustatuko litzaidake.  
 Bazenekien elkarrizketa ez zela horrelako komentariarik gabe amaituko, ama espezialista da horretan.  
 Ama, telefonoa eskegitzera noa.  
 Itxoin, barkatu... Martina... ez nuen horrelakorik esan nahi.  
 Ama, telefonoa eskegiko dut.  
 Martina, hara joatea nahi duzu? Laguntzarik behar ba...  
 Pi-pi-pi-pi-pi...  
 Telefonoa eskegi eta idazteari ekin diozu berriz ere.  
 Ezin dut jasan... ezin dut ama jasan... nire onetik ateratzen nau... ezin dut jasan...

IL AZALPEN PROBA • <i>Ni, Vera</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Kaka!

Ezker eskuko hatz lodian ebaki garbia egin zenuen.

Labana aldatzeko esan dizut. Ea, erakutsi hatz hori.

Ahoan sartu zenuen eta zurrupatu. Odolaren zaporea dastatzeak nazka eman zizun eta oka egitera zindoazela iruditu zitzaizun. Burdin zaporea.

Martina, erakutsi.

Hatza ahoan zenuela, psikiatrikoko gutunazala utzi zenuen sofa zurian eseri eta barruan zekartzan bi orriak atera zenituen. Folio zuriak odolez zikindu ahala hasi zinen bertan idatzitakoa irakurtzen. Data, agurra eta hasi egin zinen:

*VERA ETXEBERRIA andreari buruzko informazio eskaerari dagokionez, honako alderdi hauek helarazi nahi dizkizugu:*

Arnasa sakon hartu zenuen aurrera jarraitu ahal izateko, eta ondoren zetozen hitz guztiak soinu gabe ahoskatuz irakurri zenituen, zure barruan geratu ez zitezen.

*Hospital Psikiatriko honetan 1935.eko azaroaren 21ean ingresatutako gaixoa, Depresio Reaktibo bezala diagnostikatutako koadro kliniko batekin sartu zen. Badirudi lehen sintoma klinikoak urte bereko (1935) abuztuan antzeman zirela. Ez dago familiaren eta gaixoaren inguruko intereseko daturik.*

IL AZALPEN PROBA • <i>Ni, Vera</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. EZ idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Oraindik ere eguzki izpiek nire begietan utzitako gehiegizko argiak dena zuri ikusarazten zidan. Leiho kantoia ukituz heldulekura iritsi eta irekitzea lortu nuen. Laino zurien artean ikusi nuen: leihoaren kanpoaldeko erlaitzean txori bat zegoen hilda. Ezin nuen ulertu noia jo zuen horrelako kolpe handia kristalaren kontra. Leihoaren kanpoaldean zeuden burdinazko barra guztiak zeharkatu behar zituen horretarako. Punteria bikaina edo zorte txarra izan behar zen horretarako. Seinale txartzat hartu nuen. Egoera hartatik berehala atera behar nuelako iragarpena.

Zer egin jakin gabe, geldu nengoen. Pixkanaka, erlaitzean zegoen txori hila esku batek ukitzen zuela antzeman nuen. Bista ez zitzaidan bere onera itzuli oraindik baina alabaren eskua izan behar zuen hark. Txoria laztandu zuen eta gustura sentitu nintzen keinu harekin. Nire esku biak geldu nituen, bata leihoaren heldulekuan eta bestea sabelean.

Bat-batean elkarri begira aurkitu genuen geure burua.

Parez pare.

Aurrez aurre.

Nire bista bere onera iritsi zen arte.